

**MANUEL LEKUONA Saria**  
**Premio MANUEL LEKUONA**




ASMOZ TA JAKITEZ  
EUSKO  
IKASKUNTZA



---

**Andrés E.  
de Mañaricúa  
Nuere**



**4**

---



MANUEL LEKUONA Saria  
Prix MANUEL LEKUONA

---

Andrés E.  
de Mañaricúa  
Nuere



1986



EUSKO  
IKASKUNTZA

## **Autora: M<sup>a</sup> Angeles Larrea Sagarminaga**



Remigio Mendibururen brontzeko eskultura  
Escultura en bronce de Remigio Mendiburu

LARREA SAGARMINAGA, M<sup>a</sup> Angeles  
Andrés E. de Mañaricúa Nuere / M<sup>a</sup> Angeles Larrea Sagarminaga; [traducción al euskera Luis Manterola] - Donostia : Eusko Ikaskuntza, 1997. - 89 p. : il. ; 21 cm.- (Manuel Lekuona Saria=Premio Manuel Lekuona; 4). - Texto bilingüe en euskara y castellano. - Premio Manuel Lekuona 1986  
ISBN 84-89516-45-6

1.- Mañaricúa Nuere, Andres de - biografía 2. Bibliografía - Mañaricúa Nuere, Andres de I. Eusko Ikaskuntza II. Serie III. Tit.

012  
929

Hauen laguntzarekin: Arabako Foru Aldundia, Bizkaiko Foru Aldundia, Gipuzkoako Foru Aldundia, Nafarroako Gobernu, Eusko Jaurlaritza.

EUSKO IKASKUNTZA - SOCIEDAD DE ESTUDIOS VASCOS  
Miramar Jauregia - Miraconcha, 48 - 20007 Donostia


ISBN: 84-89516-45-6

Depósito Legal: BI-1522-97

Fotocomposición: IKUR, S.A. - Cuevas de Ekain, 3 - 1.º - 48005 Bilbao  
Impresión: Artes Gráficas Rontegui, S.A.L. - Avda. Ribera de Erandio, 4  
48950 Erandio - Bizkaia

---

<b>Datu biografikoak</b>	<b>5</b>
<b>Datos biográficos</b>	<b>33</b>
<b>Une gogoangarriak</b>	<b>61</b>
<b>Momentos memorables</b>	<b>61</b>
<b>Bibliografía</b>	<b>75</b>



**E**usko Ikaskuntzako buruzagiek On Andres Mañaricúa bezalako gizon garrantzitsu baten biografia agintzerakoan, erantzukizun handiz zamatu naute. Bihotz-bihotzetik eskertu behar diet, alabaina, nitaz oroitu izana halako zereginaz arduratzeko. Nolanahi ere, konfidantza horrekin ados joan daitekeen berme bakarra dago nire aldetik: Andres jaunarekiko atxekimendua eta esker ona. Hori dela eta, ahaleginean eta ilusio guztiarekin saiatuko naiz hark zituen balio ugariak nabarmentzen, haren irudia ahulago agertaraz lezakeen ezeren itzalik gabe, zeren eta inoiz ez bainaiz aski maiz gertatu ohi den zera horren lekuko izan, hots, inor ez dela handi izaten... ganberako zerbitzariaren begietarako.

Egia da inoren bizitzan hainbat gauza nabarmentzeko, hainbat gauza estimagarri denean, agian, hobe litzatekeela oreka handiago ager lezakeen beste norbait lan honetaz arduratu izana, irakurleak gehiegikeriaren bat suma baitezake gure jardun honetan, baina Andres jauna ezagutu zuena konturatuko egingo da zuzen ari garela humanista handi, ereduzko apaiz eta maisu berezi horretaz dihardugularik.

**Lurraren maitasuna.**- Andres jaunarekin harremanetan, azalez bada ere, sartuko zen edozeinek —niretzat eta garai hartan (60 eta 70.eko hamarraldiak)— ez ohikoa zen zerbait antzematen ahal zuen, bereziki irakas-giroan eskas zena: sorlekuarenganako grina bizia.

Anastasio Olabarria apaizkide eta haren adiskide on ugari horietako batek Mañaricúaz zioenez: "Bere herriaz maitemindurik, mitoak arbuiaitu ditu ikerketa objektibo serio eta jarraikiaren bidez. Eta horrexegatik, iritzi arinen aurkari erabakia. Adibide moduan, García Villada aitaren ildotik, Aymeric Picaud eta beste zenbaiten argudio alderdikarietan oinarri harturik, Bizkaiko ebanjelizazioa Erdi Aroko mendeetara atzeratu nahi zutenei zuzenduriko kritika aipa daiteke".

Maitasun onetan gertatzen denez, inoiz ez naiz haren inguruneok ez ziren beste herriekiko edo pertsonetikiko inolako gutxiespenen lekuko izan.

Alabaina, Euskal Herriari dagokion guztiari maitasun berezia zion benetan, eta horrek asko harritu ninduen. Harentzat, euskal jendeak ahalmen berezia zuen giza esentziak, batez ere gizaki ahulenak, baloratzeko. Gizon xehe horien pentsamolde kolektiboa zein izan zitekeen aztertzeak sustatzen zuen, bizitza eratzeko moduan, haien ekonomian, lege maila iritsi zuten ohituretan ispilatzen zen pentsamolde hori. "Euskaldun historikoak gizarte-bizitza nolakoa izan behar zuenaren inguruko kontzepzioa irudikatzen zuten Foruek", esaten zuen behin eta berrito. Horiek aztertzerakoan, zeregin publikoetan komunitateak zuen protagonismoa azpimarratzen zuen, halako moldez non haren dizipulu onenak, Gregorio Monrealek ondu zuen esamoldean zioenez, Komunitateak Herriaren bizitza publikoan zuen presentziak izaera berezia ematen zien gure erakundeei, eta hortik zetozen herriak egiten zuen eskubide indibidualen defentsa, legearen aurrean hiritar guztiek zuten berdintasun juridikoa, etab.

Gauza guzti horiek berritasun handikoak ziren garai haietan, ez ohikoak baitziren.

Bere lurrarenganako maitasunezko sentimendu hartatik, beti txoko berezia gorde zuen bihotzean bere Durangalderako; Durangoz, Mañariatz, familiaren sorterriaz hitz egitea guztiz atsegin zuen.

60 eta 70. urteetan adierazitako sentimendu horiek, esan dudan bezala, erresuminez esanak izan zitezkeen, baina nik ez nuen inoiz halakorik sumatu. Bera, batik bat, gizon lasaia zen eta ez zuen inoiz "onen" eta "gaiztoen" artean banaturiko mundua eraiki. Maitatu egin zuen eta min hartu zuen guztiekin batera eta haren adierazpen ugari ildo horretatik doaz.

Euskal Historiaz eta Zuzenbideaz zuen interes handia beste interes berezi baten zerbitzuan zegoen: hain estimu handitan zituen balio haiek — eta garai haietan gaizki interpretatuak izateko arriskuan zeudenak— borondate oneko jende guztiarengana helaraztea: ez bakarrik bere herrikideengana, baizik eta gure lurretan erroterik zeuden guztiengana ere bai. "Gauza asko ikasi beharra dago Historian eta gurea ondo merezi du" esaten zuen. "Zenbaiten iritzi, halako balioak beste garai batzuetan baliozkoak ziren baina gaurko egunerako desegokiak dira, nik ez dut hala ikusten". "Gure oinarriek, gure legeek ahalmen eragile handia dute



(Larramendirengan aurkitzen zen intuizio bera), eta gaur egun guztiz baliozkoak lirateke".

Andres jaunaz dakidan guztia, eta ondoko orrietan garatzen saiatuko naizena, haren ezagupen guztiak, bertute guztiak, zuen *gizatasun handiak* moldaturik zeuden.

Ez apaiz handia, ez gizon handia ez ziren existituko, bere borondatea, lasaitasuna eta are jauntasuna ere lehendik bere adimenak, bihotz handiak eta are —ezagupenak, esperientziak eta bertuteak komunikatzeko orduan— graziak eta bizitasunak ere, landurik eta ordenaturik izan ez bazituen

Nabarmendu nahi dudan beste datu bat gizonekiko leialtasunari dagokiona da eta, horren ondorioz, garaiekiko arreta eta egokiera.

Hala beraz, Andres Mañaricuaren gizarte-alderdiak hitz egingo dugu luzeago. Baita (eta ni agian inor baino egoera hobean nago horretarako) emakumeaz zuen estima eta balorapena: "Zuek familia ezezik gizartea eta, jakina, Eliza ere, horni ditzaketen balio berezien jabe zarete". Nahiz eta gai horretan ez zegoen mirariak eskatzerik: on Andres, guztiok garen bezala, bere garaiko eta egoeretako semea zen.

Baina orri hauek, printzipioz On Andresi berari zor zaizkionak, gure adiskidea zenarenganako maitasuna partekatzen duten eta haren bizitza eta ereduaren lekuko izan diren pertsona talde baten ekarpen baliotsuez aberastu dira. Haiek izan dira: Francisco Gastañaga jn.; Eduardo López Sanz jn.; Eduardo López Sanz jn. eta bere emazte Merche, haren adiskide kuttunak gaztetatik; Anastasio Olabarria jn., Isidro Larrauri jn., Ander Manterola jn. eta José Luis Villacorta jn. apaizak eta A. Faustino Palacios, OSB; Juan Churruca jn., Adrián Celaya jn., Ricardo de Angel eta Rafael M. Mieza jn., Vicente Palacio Atard, Academia de la Historia-ko kidea eta haren ikaslea izan zen Cruz Martínez Esteruelas jn.<sup>1</sup>.

1. Lehenengo bien adiskidetasuna Bilboko Institutuko batxilergo garaietatik mantendu zen; haren apaiz lagunek, haietako batzuk aspaldiko kideak izanik, gure omenuari buruzko informazio biografikoa osatzen lagundu didate. Halaber, bai informazioa eta bai on Andresen produkzio juridikoari buruzko iritzi egokiak haren Deustuko Unibertsitateko Klaustroko irakasle lagunei zor diet; Palacio Atard irakasleak, lagun kuttuna baitut, haren obra historiografikoa berrikusteko eta hari buruzko iruzkinak egiteko lana hartu du. Cruz Martínez Esteruelas jauna funtsezko arrazoi batengatik agertzen da hemen: on Andresekin zuen adiskidetasun fina; hark, harriturik baina pozez ere, esan ohi zuen nola joaten zen harrera egitera Chamartin-go geltokira eta maleta hartzen ziola.



# Gizona: ohar biografikoa

**A**ndres Eliseo de Mañaricúa y Nuere Bilbon sortu zen 1911ko Azaroaren 10ean, Las Arenasko tren geltokiaren gainean, San Nikolas plazatxoan zegoen etxebizitzan, haren aita bertako buru baitzen. Lehentxeago sortua zen eta oraindik bizi den arreba Pilarrek osatzen zuen familia. Oinarrizko Batxilergoa hurbil zegoen Maristen Colegio del Salvador ikastetxean, Plaza Berrian, egin zuen. Aita jubilatua ondoren, behin betiko etxebizitza izango zen Fernández del Campo kaleko 2, 4.era aldatu zen familia osoa. Andres de Mañaricúak Institutu zabaldu berrian jarraitu zituen ikasketak. Primo de Riveraren diktadura urteak ziren eta indarrean zegoen ikasketa plana “Callejorena” deitua zen, Letren eta Zientzien arteko bereizketa egiten zuena. Gure gizona sail horietako lehenetik abiatu zen, aprobetxamendu ohargarriaz. Horren testigantza ematen digu Batxilergoa amaitzean unibertsitate-barrutiko buru zen Valladoliden egin beharreko Examen de Estado hartan Aparteko Saria lortu izanak. Hori 1930eko Ekainaren 18an gertatu zen.

Familiartean bizi zen erlijio giroak Ama Birjinaren Kongregazioan —“Kostkas” deiturikoan— sartzera bultzatu zuen; Jesuiten Egoitzan biltzen zen, Kongregazioaren buru Anjel Basterra S.J. zen garai hartan, eta bertako Zuzendari Batzordekoa izatea lortu zuen, Liburuzain karguan —gero etorriko zenaren igarpenez bezala.

Batxiler titulua lortu eta handik gutxira, Logroñoeko Elizbarrutiko Apaizgaitegira joan zen eta bertan eliz ikasketei ekin zien, 1935ean Gasteizko Apaizgaitegian bukatuko zituenak. Ondoko urteko Ekainaren 6an On Andres apaiztu egin zen; Abenduaren 6an (zenbait zailtasun gainditu ondoren, antza), Erromara iritsi zen bere karrera Unibertsitate Gregoriarrean jarraitzeko asmoz. Emaitzak, berriro ere, bikainak izan ziren: 39. urtean defendatu zuen Doktore-tesiak (*El matrimonio de los esclavos*) “Summa cum laude” kalifikazioa jaso zuen eta Fundação Cardenal Pacelli delakoak argitaratua izateko ohorea izan zuen, hartara ikasturte bakoitzean

irakurritakoan artean nabarmenenak bereizten zituela fundazio horrek. Gainera, merezimenduzko sari gisa, Pio XII.aren urrezko domina jaso zuen.

Erromako prestakuntza aldia modu horretara amaiturik, On Andres bere Elizbarrutira itzuli zen. Lehen egitekoak Elosun bete zituen, bertako parrokiatz denbora batez arduratu baitzen, Legutioko zerbitzuarekin batera, bertan apaiz laguntzaile karguan aritu zelarik. 1940 eta 1944 bitartean "Humanitateak" gaia irakatsi zuen Bergarako Apaizgaitegi Txikian. Ardura horrekin batera, bertara bildutako ikasleen mantenurako bizibideak bilatzeko erantzukizuna zuen, bai eta gerra ondoan berragertu ziren izurrien kutsadurari aurrea hartzekoa ere. Garai hartan halaber, apaizgai izatekoak ziren haurren ardura izan zuen Biasteriko ikastetxean.

1944an, Andres de Mañaricúa Deustuko Unibertsitateko Zuzenbide Fakultateko Klaustroan sartu zen. Andres Mañaricúaren irakas-ardura gehiena bildu zuten irakasgaiak Zuzenbide Erromatarra, Nazioarteko Zuzenbide Publikoa eta Zuzenbide Historikoa izan ziren, eta 1947-48 urtean Erljioa. *Estudios de Deusto* aldizkariako "Recensiones" atalak biltzen dituen On Andresen azterketa kritikoen saila hain handia da ezen alferrikakoa dela hona ekartzea.

Zenbait urtetan, On Andresek bere gain hartu zituen apaiz-zerbitzuen artean, Berrizko Andre Maria Mesedetakoaren mojek Bilboko Gardoqui kalean zuten Ikastetxeko kaperautza zegoen. Guzti horrekin batera, Zuzenbide Zibila karrera egin zuen eta dagokion lizentziatura Ovidoko Unibertsitatean lortu zuen; bertan ere, zenbait urte geroago (1965) Doktore izendapena erdietsi zuen ikerketa zehatz baten bidez: "El nombramiento de Obispos desde los orígenes hasta la reforma Gregoriana". Aurrekoak bezala, honek ere kalifikazio gorenarekin merezi izan zuen Universidad Central delakoan publikoki defendatu ondoren.

Urte batzuk lehenagotik (1956), eta antzinako Gasteizko elizbarrutia partekatu ondoren Derioko Apaizgaitegi Nagusia eraiki zenean, On Andres Liburuzaina izendatu zuten<sup>2</sup>. Ohi bezala, ahalegin guztiekin saiatu zen eginkizun hartan eta berari zor zaio Apaizgategiko liburutegiko aberaste hura. Lan horretan, On Andres liburudenda zaharren ikerle nekazina

---

2 Izendapen horrek, haren garaikide batzuek emandako testigantzen arabera, ustekabean hartu zuen Elizbarruti berriko apaizgoa. Apaiz askorentzat, on Andres erakunde berriko Errektoretzarako hautagai egokiena zen aginpide moral eta prestakuntza intelektuala. Modu aski bitxian, Liburuzain izendatze hura Gúrpide monsinoreak Errektorea izendatu aurretik etorri zen. Apaiz lagunen iritziz, kargutik banatze hartan zerikusia izan zuen gure biografiatuen joera politikoak, apezpikuarenetik urrun zena.

bilakatu zen, beti eskumenean gerta zitekeen edozer gauza balioetsuren xerka zebilela<sup>3</sup>.

Aro goiztarretik sumatua zuen On Andresek Historiaren "deia": 1935etik, artean apaizgai zela, "La democracia vasca" izenburuko idatzi labur batekin esku hartu zuen Eduardo de Escarzaga Enkarterriko apaiz jaun merezimendutsuaren omenaldiko liburuan. Gerora, berriro ekin zien historia lanei *Santa María de Begoña en la Historia Espiritual de Vizcaya* izenburukoarekin, Bizkaiko Probintzia Aldundi Txit Gorenak antolatutako Lehiaketan lehen saria izan zuena eta bere lan egiteko molde garbiaren eta zientzia-zorroztasunaren erakusgarri dena. Are osokiago lotuko zitzaion eginkizun horri, 1972an Bizkaiko Aldundiaren eta Deustuko Unibertsitatearen artean sinatu zuten hitzarmenari esker, "Historia de Vizcaya-ko" Katedra ezarri zutenetik, On Andres haren lehen arduraduna izan baitzen. Nolanahi ere, ordurako inprimatzera emana zuen bere *Historiografía de Vizcaya (Desde Lope García de Salazar a Labayru)*, 1971n agertu zen liburu bikaina.

Haren gaitasuna eta jitea zirela eta, Zuzenbide Fakultateko Dekano izendatu zuten eta kargu hartan iraun zuen 1968tik 1972ra bitartean, ikaslegoaren gorakada eta, egoera soziopolitikoaren bilakabidea zela medio, zenbait egoera gatazkatsu gertatu ziren garaian hain zuzen. Dekano karguaren ondoren (Deustun bertan beti ere), Departamento de Estudios Vizcaínos (1974), Unibertsitate beraren eta Bizkaiko Probintzia Aldundiaren babespean sortu berriaren ardura hartu zuen bere gain On Andresek. Liburutegi bikain baten sorrera izan zen bertan egindako lanaren eta bere ezagupenen emaitza, liburutegi hartara, Unibertsitatean lehendik baziren zenbait zentratutik ekarritako liburuen oinarriaren gainean, Zuzendariak erabakitako erosketak bildu zirelarik.

Zituen gaitasunen aitoparenarekin batean, kargu eta titulu anitzez horniturik ikusi zuen bere burua On Andresek: Bizkaiko Eliz Artxiboko Aholku Batzordeko kidea (1976), Bizkaiko Aurrezki Kutxako Euskal Herriko Historiari buruzko Liburutegiko zuzendaria, Labayru Ikastegiaren sortzaile eta ohorezko kidea, Durangoko Arte eta Historia Museoko Lehendakaria, Euskal Medikuntzaren Historia Elkarteko bazkide sortzailea. 1985ean, Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Aldundiak **Bizkaiko Seme Bikaina** izendatu zuen;

3. Rotterdam-en egindako gestioei esker, *Patrologia Latina, Griega* eta *Siriaca* delakoren zati bat lortu zuten, MIGNE, garaiko 400.000 pezetetan, Gúrpide monsineroak emandakoak.



urte bat geroago, Eusko Ikaskuntzak "Manuel Lekuona" Saria eman zion eta Ekainaren 13an Durango Hiriaren Urrezko Domina jaso zuen.

Alabaina, ohorekin batera, ajeak ere azaltzen hasi ziren. Apurka-apurka, gero eta gutxiago agertzen zen Deustun, jubilatzerakoan bertako Katedradun Emeritu izendatu baitzuten, eta parte hartzeko deitzen zuten foroetan ere huts egiten zuen.

Emeki-emeki azkena iritsiko zen. On Andres de Mañaricúa 1988ko Uztailaren 21ean hil zen.

# Apaiza Fraternidad Cristiana

**O**rain artean esan den guztia, argi baten pean ulertu beharra dago: On Andres de Mañaricúaren apaizgoa. Eta hori da berari dagokion ezaugarri berezia; bere tasuna eman ziona eta baldintzatu zuena. Bizitzan zehar, On Andres hainbat alderdirengatik gailen izan zitekeen, baina hori da haren giza osotasuna ulergarri egiten duena. Haren baitan apaizgoa natura egin zen.<sup>4</sup>

*"Inoiz ez zuen herabetasunez irakasle, idazle, lege gizon... gisa zuen ospearean atzean bere apaiztasuna gorde. Bere bizitza guztia eta jarduera guztia apaizaren izaeran integratzen ziren eta aldarearen eta arimen zerbitzua gauza guztien gainetik baloratzen zuen."*

Gerra zibilaren ondoko garai tragiko eta zailak bizitzea egokitu zitzaion On Andresi, apaizgoa hasi berritan ia. Neurri batean, Mañaricúari euskaldun garaituen alderako joerakoa izatea egozten zitzaion; ez zen ondo ikusia beraz. Horrek esplikatu lezake modu bikainez lortutako Zuzenbide Kanonikoko titulazio berri haren eta Legutio, Biasteri eta Bergarako lehen lantokien arteko kontrastea: baserri giroko parrokia txiki bat eta Apaizgaitegian sartu aurreko haurrentzako ikastetxeak. Baina On Andresek ez zituen begiak estalirik eta orduko Gasteizko Elizbarrutiaren egoeraz ohartzen zen, gero eta arreta minduagorekin. Bere testigantza arabera, On Mateo Mugicak —erregimen berriak arbuiaurik zegoenak— okupatu zuen egoitzaren Administraile Apostolikoa zen Lauzurica Monsinorearen jarrera onartezina zen Mañaricúarentzat. Lauzuricaren arabera, irabazleen borondateari saihesten saiatzea ez zen zuhur jokatzeari; gure gizonarentzat, ordea, monsinoreak bere laguntza eskaintzen zion erregimen berriari inork ezer eskatu baino lehen ere.

Mañaricúa maiz elkarriketatu zen Mateo Mugicarekin beronen Zarauzko erretiroan eta horren bidez gerra denboran Euskal Herrian gertatu

<sup>4</sup> Lekuokotasun hau, eta geroago etorriko diren beste batzuk, Anastasio Olabarria haren apaiz lagunari zor dizkiot. Bihoazkio nire eskerrak bihotz-bihotzetik.

gorabeheri buruzko informazioa bildu ahal izan zuen, baita gertakari haien berehalako ondorioez eta elizbarrutiko apaizen askotariko jarrerez ere. Horrek guztiak irizpiderik sendoenetako bat izango zena finkatu zuen haren baitan: Elizak, edozein murriztatetik at, erabat burujabe izateko duen premia. Independentzia horren eskas, haren iritziz, inoiz ez luke sinesgarri eta gizartean onargarri izateko behar litzatekeen maila morala izango. *Non abiamo bisogno* eta *Mit brenender sorge* entziklika antitotalitarioek oso hunkitua zeukaten On Andres eta, prestakuntza urteetatik jadanik, Jacques Maritain-en kristau humanismoaren eta komunitate politikoaren kontzepzioen eragina jasoa zuen. Eta horiek On Andresen pentsamenduan utzitako aztarna sakona izan zela ematen du.

On Mateoren eta On Andresen artean lotu zen adiskidetasunaren oinarrian batak bestearen prestutasunaz, apaltasunaz zuen pertzepzioa zegoen, baita adiskidetasunerako ahalmena eta, guztiz bereziki, apaizgoari eta Elizari ideologia guztien gaineratik biek zieten estimua<sup>5</sup>.

Alabaina, denbora asko pasa beharko zuen dinamika soziopolitikoak zuzenketak iragarri artean eta hori oinaze-iturria izan zen gure biografiatuarentzat. Antzinako Gasteizko elizbarrutia ordezkaturiko zuten elizbarruti berrien sorrera, Bilbokoan Morcillo monsinorearen izendapenez, beste arazo batzuen iturri gertatuko zen.

Izan ere, On Andresek ez zuen inongo plazarik eskuratu Bilboko parrokietan eta bere eginkizun pastorala Berrizko Andre Maria Mesedetakoaren mojek Bilboko Gardoqui kalean zuten (eta gero Gran Vía-ra aldatuko zuten) Ikastetxeko kaperautzara mugatu zen, eta kontzientziako gidaritzara, bere etxean edo penitentzigileen etxebizitzan egiten zuena. Zenbait urte geroago, konfesaleku bat izan zuen Nra. Sra. de Los Reyes y San Fernando parrokian.

Hona berak gidatuetariko baten testigantza:

*"Hain zuzen ere, lagunek eta penitentzigileek haren irizpideen zuzentasuna ezagutzeak konfidantza eta segurtasun giroa sortzen laguntzen zuen, premiarik gabeko eskrupuluak sortzetik ihes egiten baitzuen beti, bere orientabideak objektibitate handiarekin zentratuz eta*

5. Informazio hau luze eta zabal hartua da magnetofonoz egindako erregistro batean; bertan José Luis Villacorta jaunak on Andres berarekin izan zuen elkarrizketa biltzen da eta Euskal Herriko Hots Artxiboan gordetarik dago. Kontsulta elkarrizketagileari berari zor diot, eta hari eskertu nahi diot nirekin izandako begikotasunagatik.



*funtsezkoa denari lehentasun garbia emanaz, nahiz eta helburuak irsteko bere aholkua, lotura formalistarik eta farisau molderik gabe, araudiaren letrari heltzen bazion ere, zeren eta premiazkoa denear araudi horrek egoera orokorrak hartzen baititu kontuan —eta bera maisu zen horretan— eta kasu, egoera eta nortasun bakoitzaren errealitate biziez oharturik, beti erantzun egokiak ematen zizkien jendearen zalantza edo kezkei. Haren orientabideak ez ziren erosoak beti, baina bai karitate zentzu handiz eta eragin zitzaketen erantzun psikologikoez pertzepzio oso argiz emanak beti ere”.*

Bestela ezin izan eta, On Andresentzat Meza bere fedearen adierazpena eta gauzatzea zen. Zenbait lekukok haren erereduzkotasuna azpimarratzen dute, are zenbait apaizak ere, sakristiaren ate atzetik, zelatatu egiten zuten meza ematen zuenean. Haiek ziotenez, Jainkoarekin hitz egiten zuelako sententzia hunkigarria zen.

Bere apaiz bizipenak, besterengana irekita zegoenak, apaizkide erretiratu edo gaixoen azken urteetako gorabeheraz, gorabehera gogorrez zenbaitetan, ardurutzerara eraman zuten. Haien onetan *Fraternidad Sacerdotal* delakoa antolatu zuten, haren bidez behartsuenei laguntza ekartzen zela.

Bere izpiritua eguneroko otoitzean, ofizio-errezuan eta urtero gogarteari eskainitako gune baten bilaketan elikatzen zuten. Halatan, urteko oporrak, hein handi batean, Silos-ko Sto. Domingo monasterio beneditarrean ematen zituen. Bertan estimu handitan zeukaten eta horren testigantza ematen digu A. Faustino Palacios-ek O.S.B. :

*“Hamalau urtez edo ezagutu zuen On Andres pertsonalki. Denbora horretan urtean bi aldiz gutxienez hurbiltzen zen monasteriora: Deustuko ikasle-ohi batzuek osatu laiko talde baten gogo-jardunak zuzentzeko eta bere urteko gogarte-aldirako, zortzi egun inguru.*

*Azken hauetan, komunitatearekin batera bizi ohi zen, monjeen bizimodu berarekin eta haien ordutegia jarraituz.*

*Zer bilatzen zuen Silosen? Kristau gogarterako, ikasketarako eta atsedean hartzeko giro egokia, zalantzarik gabe. Guztizko begirunez hartzen zuten bake eta isiltasun giro hau. Jainkoarengana hurbiltzen laguntzen zion otoitz giroa. Eukaristia monjeekin batera egiten zuten eta gainerako Ofizio liturgikoetan ere esku hartzen zuten.*

*Kontsultak egiten zituen liburutegian eta monje ostatariekin lagunarteko une lasaiak partekatzen zituen. Familia bateko senide gisa*

sentitzen zuen bere burua —hala adierazi zuen behin baino gehiagotan—, bai berari eta bai beste askori, harrera eta bake-gunea eskaintzen zion familiakoa, zenbait egunez, batzuetan mugitua izan ohi den bizitzatik aldentzeko aukera ematen duena.

*Monasterioko giroa sakon sartu ohi da egun batzuetarako balio espiritualekin lotu nahi dutenen baitan, asmatu ere ezin dugun eragin guztiz positiboa eraginez.*

*On Andresek askotan aurkitu zituen bertan Bilboko ostariekin, hamarraldi askotako tradizioari jarraituz, sosegu eta otoitzezko egun batzuk bilatzen zituztenekin. Haiek jarraitu egiten zuten —eta dute— gure arroztegira biltzen ziren bilbotar famatu haien segida: Miguel de Unamuno jn., Areilza doktorea, Ignazio Zuloaga pintorea, Ramiro Pinedo jñ.*

*On Andresek Silos maite zuen. Baina Silosek ere estimu handitan zuen apaiz oso hura eta miretsi egiten zituen haren bertutea eta jakinduria<sup>6</sup>.*

## **Fraternidad Cristiana**

Obra hau berrogeita hamargarreneko hamarraldiko amaieran sortu zen. 1958 eta 1959 urteetan, hain zuzen, liburuska batzuk inprimatu ziren, eta haietan aise ikustekoa zen gure biografiatuaren eskua, era anonimoan agertu baziren ere. Haien edukia, elkartasun-izaera handia zuen erlijiozko praktika bide berri bat zabaltzen saiatzen zen profesional liberalen artean. Erlijio praktika pertsonal eta asozial soilak asetzen ez zituen medikuak, abokatuak, ingeniariak, enpresariak, enplegatuak, etab. ziren helburua. Kristautasunaren dimentsio "horizontala" bultzatu nahi zen, maitasun unibertsaleko aginduaren eta garai apostolikoetako praxiaren aginduari jarraituz. Ez zen On Andres, hala eta guztiz, ideiaren "aita"; Aya Goñi anaien —Andres eta Eduardo, Jon Arróspide doktorearen eta beste zenbaiten izpiritutik sortua baitzen. Ideiak, alabaina, oihartzun azkarra izan zuen Mañaricúarengan. Horientzat guztientzat, herri klaseak eta Eliza bereizten zituen alde handia, ez bazen

6. Testigantza hau Faustino Palacios González O.S.B. apaiz jaunaren begikotasunari zor diot. Bihoa ohar hau bai berarentzat eta bai komunitatearentzat, nire esker onaren testigantzaz. Berak esan didanez, Unamunok Silosen bukatu zuen Velázquezen Kristori egindako poema ezaguna. Zuzendu egingo diot lagun on horri: Zuloaga, gauza ezaguna da, eibartarra zen eta ez bilbotarra.

erabateko etsaitasuna, arazo larria zen. Eta haiek garbi zuten "erru" guztiak, halakoak liratekeen mailan eta moduan, ezin zirela ezer ez zutenen bizkar ezarri, baizik eta kristau dotrinaren beraren oinarrizko datu batzuk planteatzeko premia zegoela klase dirudunen artean, hau da, modu tradizionalerik, erlijiozko munduarekin lotura zutenen artean. Haien abiaburua, aitortua eta agerikoa, "Mistici Corporis Christi" entziklika zen, baina sortzen ari zen erakunde hartan planteatzen ziren eskakizunek gainditu egiten zituzten, askozaz ere, eliza-giro tradizionalerik ohikoak zirenak. Esate baterako, Fraternidad hartako bazkideei eskatzen zitzaizkien diruzko ekarpenak aipa daitezke: 5.000 eta 30.000 pezeta arteko soldatak oinarritzat harturik, haurrik gabeko familia batek eman beharreko *gutxieneko* kopuruak (eta hitz hori nahita azpimarratzen dut), sarreraren %10 izan behar zuten.

Lehen hamabi urteetan lehia handiz lan egin zuten Fraternidad hartan. Une gorenetan, 150era iritsi zen kideen kopurua eta haien ekarpenen bidez 800 familia baino gehiagori eta ia 200 gizarte ekintzari laguntzen zieten.

Hirurogeita hamargarrenen hamarraldian beherapen handia jasan zuten eta aurreko garaietan hartutako konpromisuei erantzutea gero eta zailagoa gertatu zen; pixkana-pixkana bizirik zirauen talde haren zailtasunak gaindiezinak egin ziren eta, ondorioz, hogeita hamahiru urteko ibilbidearen ondoren eta asmoak ahalbiden gainetik zeudela oharturik, elkarteak desagertea erabaki zuten 1989an.

Guzti honetan On Andresez dugun oroitzapenari dagozkion bi elementu aurkitzen ditut: alde batetik, sentiberatasun sozial irekia, urte haietan hain ohikoa ez zena erlijio-bizipenak zituztenen artean; bestetik, haren protagonismoa eza: bera osagai bat zen Fraternidad-ean, eta osagai garrantzitsua, apaiza zelako eta gero eta ospe intelektual handiagoa zuelako, baina beste borondateen mende zegoena. Berau, agian, Mañariçüarengan gutxien baloratu diren alderdietariko bat dugu.



# Maisua. Irakas jarduera, ikerketa lerroak. Obra nagusiak

## Irakaslea eta Maisua<sup>7</sup>

Goian aipatu denez, On Andresen eginkizun publikoak, funtsean, irakaskuntza inguruak izan dira, Zuzenbide Fakultatean aurrenik eta gero, biotan batera arituz, Deustuko Unibertsitateko Filosofia eta Letretako Fakultatean. 1944tik 1988ra, unibertsitate mailako irakaskuntzaz jubilatuta arte, "Mañaricúa irakasle" gisa ezagutu zuten. Data horiek guztiz kontuan hartzeko datu bat erakusten dute: ohikoa ez den irakasle-bizitzaren iraupena.

Berak ezagutu zuen Unibertsitatean bi aldi guztiz desberdinak bereiz daitezke: lehen urteetan (hirurogeikoak aski aurrera joan artean) ikasleen kopurua mugatua zen, harreman pertsonalak errazagoak ziren; ordena eta diziiplina ohikoak ziren, garaiko arauen arabekoak. Gero —eta aldaketa oso denbora laburrean gertatu zen—, Unibertsitatea jendez bete zen, geletako ikasleen kopurua izugarri gehitu zen eta giroa erabat aldatu zen.

*"Ikasleen taldekako banaketa zela eta, ez nintzen haren ikasleetarikoa (gogoratzen du R. de Angel irakasleak). Banuen, jakina, haren klaseetako kallitatearen berri. Baita azterketetan zuen 'gogor' famarena ere, nahiz eta inoiz ez nuen aditu kalifikatzerakoan aldakorra*

7. Atal honetan tartekaturik agertzen diren on Andresen unibertsitate-jardunari buruzko testigantzak, guretzat guztiz interesgarriak direnak, haren lankide kuttunetarikoa bat izan zenaren begikotasunari zor dizkiot: Ricardo de Angel irakasle jauna. Bertan eman ditut oso aberasgarri direlakoan.

zenik, ez eta notak jartzerakoan pertsona-motak kontuan hartzen zituenik. Eta, nola ez, banuen baita haren zientzia eta giza mailaren berri. Hain gogoratua den Ignacio Artaza jauna lehen mailako informazio iturria izan zen niretzat: oso ondo ezagutzen zuen On Andres eta arrazoi bereziak zituen jakiteko, adibidez, nolako jarrera zuen bere kontseiluen beharrea zeudenei laguntzeko, edo 'ezker eskuak ezagutzen ez dituen' karitateak ere".

Politika moldeko ekintzak, ordura arte ezezagunak, gero eta gehiago egiten hasi ziren bertan eta polizia ere Deustuko esparruan azaltzen zen sarri. Argi denez, gizartearen baitan bizi ziren tentsioen lekukoa zen Unibertsitatea.

On Andrezegogoratzerakoan, gauza aski nabaria da ordena, diziiplina eta esfortzua estimatzen zituela; haren bizitza horren testigantzarik onena dugu. Orobat, argi eta garbi dago halako izaeragatik (baina ez bakarrik horregatik), Andres Mañaricúa ikasleek aintzakotzat hartzen zuten irakaslea zen. On Andres irakasle "egokia" zen: erabat konplizten zuena, argia bere azalpenetan eta ohikoa ez den zorroztasun intelektualez hornitua, irakas-eginbidean bere ardurapean izan zituen gaien ezagupenerako sarbidea errazten ziena ikasleei. Jakina, ez zuen irizpidez aldatzen ikasleek lorturiko emaitzak ebaluatzeko orduan, eta ikasturteko hilabeteetan zehar saiatzen ez zirenek zaila (hobe esan, ezinezkoa) zuten ezer lortzea. Haren eginkizunaren alderdi honi dagokionez, On Andresek beti errespetua ezarri zuen ikasleen artean, baina inoiz ez zuten ikasle horiek harenganako hoztasuna edo ezinikusia agertu. Ohar hauek moldatzerakoan bilduriko testigantzek alderantzizkoa erakusten dute.

Klaustro-kideek ere harenganako oniritzia partekatzen zuten. Hona hemen berriro de Angel doktorearen oroitzapenak:

*Unibertsitatera irakasle gisa itzuli nintzenean, 1986an, Dekano izendatu zuten On Andres. Nire zorionerako, gure bulegoak elkarren ondoan zeuden eta eguerdian etxera zeraman 'taxista' nintzenez, berari 'entzuteko', berarekin hitz egiteko eta beraren bizitzari buruzko xehetasunak (baita konfidentzia zenbait ere) ezagutzeko aukera izan nuen.*

*1970ean edo, Dekano-ordea izatea proposatu zidan, eta gustura onartu nik. Horrek gure elkarren arteko harremana sakontzea ekarri*

zuen. Maiz aski, ordea, biok dekanogelantzararik sarturik, sarri egiten ziren 'eserialdi' haietako bat zela bide, gure 'askapena' eguerdiko goseari edo asaldarien asperdurari fidatu beharrean aurkitu ginen<sup>8</sup>.

1975ean, Dekano kargua egokitu zitzaizkidan, harreman estuan jarraitu nuen On Andresekin eta askotan jo nuen harengana iritzi eske, etorkizun hurbileko elkarbizitzarako irizpideak aurkitu nahiz nenbilerarik.

Puntu horretan aurkitu nuen nik lasaien, koherenteen eta, zergatik ez esan, ustegabekoen On Andres. Nik ezagutzen nituen haren ideia politikoak —partez igartzen nituen hari buruzko zurrumuruengatik—, eta hark bazuen nireen berri. Baina hori ez zen trabarik izan, baizik eta areago sintonia oso nabarmena bultzatu zuen gure jarrerren artean. Dogmatismo guztien arbuioa deigarri egin zitzaidan, Historiak —berak hain ondo ezagutzen zuen Historia horrek— erakusten duenari buruzko ezjakintasunaren, hots, zatitu eta bereizten gaituenenaren arbuioa. Ez zen ezertan erradikala eta ia gauza guztietan ulerkorra zen. "Mailaz igotako kaskarkeria" ez, hori ez zuen onartzen, ez eta itxurakeriak, oportunitasoa eta eskergabekeria ere.<sup>9</sup>

Alabaina, beste alderdi funtsezkoago bat kontuan hartu beharra dago hemen. Zeren eta, irakasle funtzioaren gainetik, On Andres maisu izan zen.

Haren obrara hurbiltzen denak alderdi deigarri bat aurkituko du: obra hori planteatu eta burutzerakoan erabili duen zorroztasun metodologikoa. Eta are nabarmengarriagoa da obra historiografikoan, eta nabariagoa On Andresek gaiari doakion prestakuntza berezirik ez zuela jaso oharretarakoan. Une honetan ez dakigu zeintzu izan ziren haren gidariak, zeren eta halakoak izan baitziren, hori garbi dago. Harremanei dagokionez (gutxienez, testigantza propioen bidez ezagutu dezakegunaren arabera), lanbideko kideak ez ziren ugari; agian, Erromako Gregoriarreko garaietan?; edo lehenago, Gasteizko apaizgaitegian ezagutu zituen On Jose Migel

8. "Egun batean, bertan bildutakoak oihuka ari ziren bero-bero: "Mañas, vete a la m...!". On Andresek harriturik begiratu eta galdetu zidan: Zer ikusi behar Mañas-ek honekin? Esan beharra dago Mañas Bilboko Unibertsitate sortu berriko Dekano bat zela. Azaldu behar izan nion 'Mañas' bere ezizena zela ikasleen artean, nahiz eta 'Ticio' edo 'Cayo' ere deitzen zioten, begi bistako araziengatik. Kontua da on Andres barrez lehertu egin zela. Horrek haren umore ona orotarazten dit. Trufazko umorea, oso fina, oso euskalduna", bukatzen du de Angel irakasleak.

9. De Angel irakasleak, azkenean esandakoa bermatuz, on Andresen apaltasuna orotarazten du. Berak "errieta" eman zion behin baino gehiagotan, Zuzenbide Irakasle gisa on Andresek bete zituen Zilarrezko Ezteiak zirela eta, de Angel irakaslea haren lanak biltzeaz arduratu zelako gure biografiatuen omenezko liburu bikain batean argitaratzeko.

Barandiaran, On Manuel Lekuonaren mailako jendearekiko harremanetan? Baina alorrak ez ziren elkarren hurbilekoak eta zerbitzu berezien premia du bakoitzak... Seguraski, On Andresen ezagupenaz hutsik geratuko diren alderdietako bat dugu berau.

Dena den, horren jatorria dena delakoa izanik ere, horrek ez du haren lan-sistemaren ez lorpenen estimua apaltzen. Iturriez zuen ezagupenak eta haien erabilera kritikoak harrimena sortzen zuten, baita haren Jaurerriko jatorria edo Euskal Herriko kristautzea bezalako arazoez gutxien arduraturiko ikasleetan ere. Erdi Aroko testu lehorrez egiten zuen deskribapena, haien balorazioa, ateratzen zien zukua ereduak ziren; halaber, testuingurua ezartzeko, letra gainditu eta esanahi historikoaren muinaz jabetzeko ahalmena ereduakoa zen.

### Lehentasunezko ikerketa-lerroak

Oso goizetik, On Andresek bere lehentasunezko eremuak agertarazi zituen. Bizitza luzean zehar izan zituen ahalbideek lehenengo erakusgarri hura berretsi zuten. Ulertuko zenuenez, moldezko letretan egin zuen lehen agerraldiaz ari naiz: gutzit estima handitan zuen Eduardo de Escarzaga, Gasteizko Apaizgaitegiko Errektore jaunaren omenezko libururako lana, "Democracia vasca" izenburukoa (1935).

Argi dago, data hartako lana talentu hasiberriaren emaitza dela; eskolatu, baina ez guztiz eratua, eta inguruneke tentsioek, bai eta autorearen sinpatiek ere baldintzatu eta ukitzen dutena. Baina, hori guztia kontuan harturik ere, foru-sistema juridikoen eta azpiko filosofiaren irizpide-printzipio batzuk hautematen dira<sup>10</sup>. Eta bitxiena dena: bere iker-saioen eremua eratan duten alderdi bien gainean makurtua agertzen da Mañaricúa: zuzenbidea eta euskal historia<sup>11</sup>.

---

10. Adrián Celaya doktoreak, on andres Bizkaiko Seme Bikaina izendatu zutela eta, egin zuen hitzaldian gaztaroko testu horretatik hartu zuen herriaren ordezkari eta orden juridiko eta sozialaren lehentasuna politikoaren gainean, demokratikotzat hartzen den sistema ororen ezaugarriak direla berresten duen aipamena. Horrek gure biografiatuen irizpideari buruz esandakoaren egokitasuna nabarmentzen du.

11. Ildo horretatik, esan behar dut nire harkiko harreman luzean beti deigarria iruditu zaidala behin eta berriro esaten zuen zera: Euskal Herriak Monarkia onartu zuela baldin eta beronek foru ituna zehatz-mehatz errespetatzen bazuen. Euskal foruak ez dira zentralistak zioen behin eta berriro, eta begikotasun handiz hartzen zuen aita Larramendik sistema absolutistak sorturiko zailtasunez zioena —datu ezagunekin lan egiten zuen—, bai eta, orduan beldurrez aurrakusiak eta gero ondo ezagunak eta probatuak, joan den mendean abiatutako planteamendu konstituzionalekiko harremanei zegokienean.



Gerora, jadanik ongi heldua zela, bere joranak koordenatu jakin batzuetara zuzendu zituen: haietako lehena *Euskal Herriko kristautzea*, gai handi hori dela iruditzen zait. Hori, nolabait esan “begiko ninietako” bat zuen. Eta hartara García Villada jesuitaren Akademia de la Historia-rako sarrera-hitzaldiak bultzatu zuen, Euskal Herriko Goi Erdi Aroan zuen funtsezko interesetik erauziz. Bitxi gertatzen da, nolana ere, gure biografiatua gehien tentatu zuten gaietarikoa izanik, haren inguruko idatzizko obra konplituia utzi ez izana. Eta, hala ere, haren fitxategiek, irakurketa-oharrez beteriko karpetek, berak bilduriko iturrien erregistru xeheek eta baita bere eskuz idatzirik eta guganaino heldu den orri kopuru aski handiak, urte askotan eta hil artean, gai horretaz izan zuen arduraren fede ematen dute<sup>12</sup>.

Eremu erlijiosoaren eta laikoaren arteko harremanen alderdi honi ekin zion, beste ikuspuntu batetik, beste zenbait produktotan. Horien artean bigarren Doktoretza, Zuzenbide Zibilekoa, lortu zuen ikerketa nabarmendu beharra dago. Gerora, gai bera ukitu behar zuen apezpikutegiak eraikitzean eta lekuz aldatzean gertatu ziren indar eta tentsioen jokoaz bereziki arduratu zenean, gertakari haietan Gaztela eta Nafarroako koroa hegemonikoak eta euskal lurretan ziren eliza gehien nagusiak ziren leinuetako Ahaide Nagusiak harremanetan sartzan zirelarik.

Denboraz aurrerago joan eta Mañaricúaren beste gai kuttun bat aurkitzen dugu: foru praktiken jarraipena, udal kodeen, Ordenantzen bidez<sup>13</sup>. Haren irizpidearen arabera (eta hainbat aldiz entzuteko aukera izan nuen), foru sistemetako printzipio legalak lurralde bakoitzak —Probintzia, Jaurerria, Erresuma, etab.— ezarritako eta Batzar Nagusiek edo bertako Gorteez egokituriko bildumetan bilatu behar dira. Baina eguneroko jardunari eta komunitate bakoitzeko gorabeheri egokituriko garapenak, dagozkien Ordenantzetan bilatu behar dira.

Denbora iraganik, on Andres bere obra konplituenetako bat ekarriko zuen erronkarekin topatu zen: ikuspegi batetik edo bestetik, Bizkaiko iragana aztertua zuten obren multzoa aski ezezaguna zen, Aro desberdinetako

12. Haiek, gutxienez nire esku zegoen zatia, erabili ahal izan zituen Anastasio de Olabarriak laburpen bat egiteko BBK argitaratzen duen “Temas Vizcainos” bilduman, honako izenburupean: *Introducción del cristianismo en Bizkaia* (XVII. urtea, 204. zk.).

13. Gai horri buruz on Andresek bere *Las Ordenanzas de Bilbao en el siglo XV* prestatua zuen berak aurkitu testu batean oinarriturik; eskrupulu gutxiko kide batek on Andresek egindako fotokopiak eskuratu zituen eta moldiztegiara eramaten aurreratu zen. Nahigabea sortu zion horrek eta Bilboko Udalak testua argitaratzerakoan Mañaricúaren sarrera-lan batez lagundu zuen, fede ona engainatuaren ordainetan.

adituek nork bere garaia zegozkion obrak erabiltzen zituzten, baina ikuskera orokorra, konplexiboa falta zen. Eta halakoa moldatzeari ekin zion, hirurogeigarren urteetan bere ahaleginen parte handia bertan eman zuela. *Historiografía de Vizcaya* (1971) izeneko liburua izan zen lan horien fruitua; kontsulta-obra estimagaitza eta historialari zuhur eta helduaren irizpide-erakusgarri dena.

Modu horretara, nire ustetan, gure Mañaricúaren ikertzaile-arreta erakarri zuten hiru guneak laburbildu ditut: euskal Erdi Aroko garaia, haren alderdi bikoitzean, erlijiosoan eta zibilean; euskal araudi juridikoarekiko interesa, ordenamendu juridiko partikularrak direla bide eta Jaurerriari buruzko gogoeta historiografikoaren ikuspegi orokorra.

Deigarria dugu, beti ere, gure pertsonaiaren alderdi bat: ikertzaile bezala, On Andresek ez zuen oso obra luzerik eman. Hori ulertzeko, nire ustetan, zenbait alderdi kontuan hartu beharra dago. Eta halako lanak haren bizitza-jardunaren atalik txikiena zirena, nire ikuspuntutik, horietako lehena dugu. Ezeren aurretik, on Andres apaiza zen. Gorago aipatu dugu puntu hori, baina berriro ukitzen dut hemen kontuan hartzen ari garena argitzen duelakoan. Arimak zaintzeko erantzukizun instituzionaletik libratu zutenek, eremu horietaz arduratzeko ahalbidea aurkitu zuen, bokazioa zuen arimak zaintzeko eginkizun horri modu pribatuan ekin ziolarik. Bestalde, "ahalbide" hori premia bihurtzen zen, bizi ahal izateko haren mende geratzen baitzen; hala beraz, irakaskuntzaren bidetik abiatu zen eta ordu asko ematen zuen haren jardunean eta prestatze lanetan. Horiek guztiek, eta aipatu dudan lehenak gehiago, nire ustez, haren produkzioaren mugatua argitzen dute (nahiz eta mespretxatzeko ez den, guztiarekin ere eta haren kide askok sortutakoa kontuan hartuz).

### Zenbait obra:

*El matrimonio de los esclavos: estudio histórico-jurídico hasta la fijación de la disciplina del Derecho Canónico*<sup>14</sup>. J. Churrucá irakaslearen ustetan

*Interes eta garrantzi aparta duen arazo baten ikerlan historiko-juridiko bikaina da. Lehen iturrien (juridikoak, literaturakoak, epigrafikoak, patristikoak eta kontziliokoak) erabateko analisisa eginez, eta bigarren mailakoei ere etetengabeko arreta jarriz, erromatar*

14. *Analecta Gregoriana* 23an argitaratua (1940), 286 orr.

*munduan bi sexueta esklaboen batzeak planteatzen zuen arazo etiko eta juridikoaren aurrean Kristautasunak zuen jarrera aztertzen du. Ez zegoen erromatarren artean elkartze —“contubernium”— mota hura erregulatzen arau etikorik ez juridikorik eta, ondorioz, ezin zuten ezkontzat hartu eta elkartzen zirenen jabeek ez zuten aintzakotzat hartzen. Kristautentzat halako egoera ezin onartuzkoa zen eta hartatik zetozen abusuak guztiz kristautasunaren sistema moralaren oinarrizko printzipioen aurkakoak ziren.*

*Arazoa zera zen, jarraibide eta jarrera haien eustea Kristautasuna murgildurik zegoen gizarte haren egiturazko eta funtsezko printzipioekin hautsi gabe.*

*Obra hori —jarraitzen du Churruca irakasleak— zientzia-ikerketaren eredu da, metodo-zorroztasun eta zuhurtasun historiko handikoa, aurreiritze apologetiko edo hiperkritikoetatik guztiz aske dagoena. Argitaratu zenetik mende erdia iraganik, El matrimonio de los esclavos oinarrizko obra da beti ere, erreferentziakoa, hain garrantzitsua eta kontuz ukitzekoa den gai horretan.*

Seguruena, gure biografiatua barne-barnetik gehien ase zuten lanetariko bat *Santa María de Begoña en la historia espiritual de Vizaya* izenburukoa izango zen. Hura irakurtzean, zenbait gauza harrigarri aurkitzen dira: lehenik eta behin, Andre Mariarenganako jaiera, obratik harat doana, eta on Andresen bizitzak berak testigantza konplutua eman zuen horretaz. Ez zen horretan originala: haren aitak (Santutegira egunero joateko ohitura zuen eta bisita horietatik itzultzean hilik suertatu zenak) erein zuen hazia. Bigarrenik, ikerketaren planteamenduaren sakona eta garapen zehatza. Bietan erakusten du on Andresek bere “historiagile” moldea, berez, prestakuntzaz ez zena. Autoreak berak ispilatzen du jarrera hori lanaren hasierako hitzetan. Bertan esango du nola, eta lehen buruan, lan hori maitasunaren emaitza den, “Amaren historia delako”. Eta gero gaietariko batzuk azaltzen ditu: Bizkaiko monasterio-erregimena eta joan diren mendeetako erlijio-bizitza eta kultura, Patroi laikoen nagusitasunaren arazo zaila eta minbera, bai eta Artagan muinoko elizaren aldaketa fisikoen jarraipena ere.

Lan horretan, buru on egiteko eskuratu ahal adina elementu bildu zuen On Andresek. Hori garbi ageri da iturriak begiztatzean: kontsultatu zituen artxiboak, hala publikoak nola pribatuak (dozena luze bat), idatzizko 60 iturri inguru (hau da, eskura zitezkeen guztiak), guztizko bibliografia (eta hemen

izenlaguna egokiro erabilia da). Aurreko horiei gaitasun kritiko paregabea — horretan, haren oharrak guztiz adierazgarriak, ereduak gertatzen dira—, eta literatura tonu juxtua erantsi behar zaie.

1971n, on Andresen obra esanguratsuenetariko bat kaleratu zen, historiografiaren alorrean zuen mailaren agerri: *Historiografía de Vizcaya. De Lope García de Salazar a Labayru*. Kritika aho batez jokatu zuen obraren ezagutza egiterakoan. Palacio Atard doktorearen iritziz:

*Obra hau maisu-lana da, "klasikoaren" ezaugarriak biltzen dituen, berebiziko jakinduriaren jabe den gizon baten fruitua.*

*Bai ukitzen dituen gaien zabaltasuna eta bai, atal bakoitzean murgiltzean jarduten duen sakontasuna dira irizpide horren berme.*

*Bilduriko material historiografikoak hainbeste badira ere, haietako bakoitzaren analisia nabarmendu egiten da, datuen xehetasunagatik edo edukien balorazioagatik. Horregatik, ataletako bakoitzaren sakona azpimarratu beharrekoa da, eta ez da hau inolako gehiegikeria. Aztertu diren autoreak eta obrak gertatzen diren testuinguru historikoan kokatzen dira beti, hori baita guzti haien esanahi eta balio historiografikoa ulertzeko modurik egokiena.*

*Horrek, berez, Mañaricúaren obra hau "klasikotzat" hartzea ekarri badu ere, hau da, denboraren joana gorabehera iraun egingo duena, gainera, esan beharra dago ez dela jakituria-erudizio handiko obra soilik, baizik eta sentiberatasun handikoa bere mintzoan ere, zeren eta orri guztietan Bizkaiko Historiaz dakigun eta ez dakigunarekiko interesa, jakinzaleari komunikatzeko joran lasaiaren dardara ageri baita, ikustarazten digula nola gure iragan urruna zein hurbila elezaharretako eraskinez, zenbaitetan itxuragabeko interpretazio eztabaidagarriak soilduz eta kalitatean irabaziz joan den, sine ira et cum studio. Alderdi horri dagokionez, Mañaricúari ez zaio ezer itzurtzen, eta gainera anekdotaren alorreko zatitza har genezakeena ere ez du baztertzeko, hala nola XVII. mendeko panfleto barroko haiek non Zozo bizkaitarra Hontza galziarrarekin eztabaidatzen zen, garai hartako tokiko ezinulertuen erakusgarri, baina halako bitxitasun historiografikoa dutenak, hain zuzen ere, herri tenperaturaren termometro gisa, gerora Feijóoren arabera alboratzekoak ziren eta "iritzi komunak" deituko zituenak.*

*Mañaricúaren obrak interes handiagoa du XIX. mende hasieratik foruen eztabaidaren inguruan sortu ziren idatziak aztertzen dituenear,*

*halakoak, jakina denez, Llorenteren eta haren aldekoen erasoekin abiatu zirelarik.*

*Benetan harritzekoa da zeinen pisu historiografiko serio gutxi azaldu zuten foralitatearen defendatzaileek hasieran, mende erdia igarota ere Fontecha y Salazarren Escudo de más constante fé y lealtad berrargitaratzen zutela.*

*Estanislao de Labayruk bere Historia General del Señorío de Bizcaya argitaratzen hasi arte itxoin behar izan zen lehen historia serio eta egokia ikusi ahal izateko, egilearen arabera "(herri berezi baten historia itsusitzen duten) asmakeriaz eta eleberriaz" aske zegoena.*

*Mañaricúaren Historiografia, beraz, ondo egindako lanari, historialariaren gaitasunari monumentua da, denok esker onez aitortzen duguna eta denok aprobetxatu behar duguna, baita, gure historiari idazterakoan.*

## **Euskalerrriaren Adiskideak**

Behin on Andresek, ez naiz egunaz oroitzen, baina bai urteaz (1968), gure klaseetatik itzultzen ari ginela R.S.B.A.P.eko Bizkaiko egoitza bisitatzerako gonbidatu ninduen. Ordurako XVIII.ari buruzko ikerlana —geroko tesia izango zena— egiten hasia nintzen, hartarako mendearen bigarren erdiko Jaurerriko komunikabideetako azpiegituraren eraberritzea hautatua nuela.

Nire lanaren zuzendaria izan behar zuen Vicente Palacio Atard jaunak iradoki zidan gai hark eremu erakargarri batean sartu eta murgiltzera behartu ninduen, ordura arte batere lehia berezirik piztu ez bazidan ere.

Geroago, Felipe Ruiz Martín jn. Irakasle hautak Sarrikoko Katedran partaide izatera gonbidatua izanik, haren maisutza bereziaz aberasteaz batera, gure Herrialdeko bilakabide historikoan mende horrek zuen garrantzia baloratzeko aukera izan nuen, nola edo hala, XVIII.aren haurrak garelako esaera hori izenpetzera eramaten nauena.

Egun ez dut dudarik: egiten Euskalerrriaren Adiskideak bezalako erakunde batean esku hartzeko on Andresek egin gonbidapen hark garrantzi handia izan zuen niretzat, hala maila pertsonalean nola intelektualean. Denborarekin, elkarte horretako Zuzendaritza gorena nire gain hartzeko ardura egokitu zitzaidan (eta lehen aldiz aukeratzen zuten emakume bat halako postuan).

Bizkaiko Batzordeko kideekin egin nuen topaketa (besteak beste, Juan Ramón Urquijo jn., Alacha-ko Kondea, Santos Pagadigorria jn., Juan Bautista Merino jn., Carlos González Echeagaray jn. gogoratu nahi ditut), ez da ezabatu nire burutik, urruntasuna gorabehera.

Berehalakoan, halako mesprezu-kutsua zuen "caballeritos de Azkoitia" epitetoa "Caballeros del primer lustre" delakoaz ordezkatu nuen, Euskal Herriko dokumentu historikoetan era guztietako pertsona nabarmenak adierazteko erabilia zena.

Haien artean, on Andresek garrantzia izugarria zuen. Benetako benerezioa zioten; nire iritziz maila pertsonalak, apaizgoa bizitzeko moduak eta, jakina, agerikoa zen jite intelektualak sortua zen.

